

Ondorenak

Ihausteri edo Aratostiak, heuren debekuak izan dituzte, moral aldetikoa behinikpehin; baina, guk dakigunez, lehengo denboretan ere ez zen ezer geratzen giza naturalaz ere grinetikakoa ez zenik. Zaharragengatik jaso ahal izan ditudan gertakari bazu oroitza ekarriko dut gaurkoan.

Oso ezaguna da Eibarko pareja harena, biak beren itxurak disfrazez aldatuak eta lizunkeritarako prest. Isilian joan omen ziren ezkutulekura, eta elkarrekiko zereginetara heldu zirenean oharitu zen senarra, bestea bere emaztea zela. Hori zen emazte argiak bere senar neskazaleari jokatutako zion ziri sartzea.

Jataldiak parejaka egiten ziren dantzalekuak ere baziren Eibarren. Behin ordea, gizon bat bakarrean toki hartara sartu nahi zenean, emakumezko baten laguntza ekar zezala eskatu zion atezainak, eta handik denbora gutira han agertu omen zuen emagaldutak. Eta, atezainak, zituen mandatuak zehatz bete nahiz. Esan omen zion:

—Ezin sar zindezke zalantzazko emakume batekin.

Bestearen ihardespena:
—Zalantzazko emakumeak hor barnean daudenak izango dira,

zerean hau oso jakinekua bai da.

Elkarrengandik banatu ezinezko pareja, Plautziako Pope eta Andando omen ziren. Beti berenak eta bi egiteko gertu zedunak. Baina, horregatik hain zuzen, koko jantzita ere, biak batean egiten zituzten bihurrikeriak oso ezagunak ziren bai Plautzian eta bai inguruko herrietan; baita Aratoesteako antzirudiak gora behera ere. Horregatik, behin batean, inork ezagutu gabe ibiltzeko asmotan, biak disfrazaturik joan omen ziren Bitoriara (Gasteizera). Bidean Andando loak hartu eta Popek bere jaxuria egin nahiaz, atzekaldean klaroneriaz (tizaz) "Andando!" idatzi zion bizkarra beteko letraz. Gasteizko kaleetan, Andandok bere izena entzuteaz, a zen susotat! Zoizaten lekuan zoizazela, atzetikara jendeak: "Andando!".

Orduan, Poperi esan omen zion:

—Hi, Pope; hemen ere laster ezagutu gaituzte eta bueltako trenu hartu eta goazen azkar Plautziara.

Eibarko Batista kojua ere, itxura aldatetako gora behera, ez zen Aratostietan inork ezagutu gabe ibili ahal izateko gizona. Izan ere bere errenka ibiltzeko

era hain omen zen berezia, nork ez igarri? Urte batean, guztiak beti laster ezagutzen zutelako benetan aspertua zegoenez, koko jantzi gabe irten omen zen. Eta, jendeak harrituta esaten omen zuten: "Horrek bai duela Batista kojua antza. Nork esan hain ondo imita zitekeanik?" Batista kojua inoiz ez omen zuten gozatu urte hartako Aratostietan baino.

Beste pareja harena ere ez zen gutiagorako. Handiak egiteko asmoz mozorro jantzi eta bai neurritik gorakoak irten ere. Ihausteriak asteariez (marituzen Aratostez), biak disfrazaturik, gau guztiz izugarriak egin ondoren eta azkenekoak mozorroak errenditurik, lastoz betetako kamioi bat arkuitu zuten eta besterik ez zitzaizen gogoratu lastaztan etzan eta lo egitea baino.

Loak hartu zituen bai, baina ez zen hor amaitu. Biharamunen, hauster egunez, goizean Azkoitian esnatu ziren, kamioi gainean, bueltarako dirurik gabe eta kale gorrian. Hura zuen hura bi gizonen xaxaria, Azkoitiko kaleetan, zer egin etzekitela, bata indio jantzita eta bestea txino. Elizara zoazen atsoak aspamen-

tuz eta ikaraturik: "Jesus, Maria ta Jose! Oraindik ikusi behar ditugu ikustekoak". Baina, hala ere, eibartarrok lasai. Misiolariak hauts-eguna ospatzera bialdiak balira bezala. Zeren, beste erremediortik ezintenez, batak besteartari: *Quia pulvis es et in pulverem revertis.*

Juan SAN MARTIN

Los carnavales tan temidos y tantos años prohibidos so pretexto de atender a la moral, apenas han tenido otras repercusiones que el estruendoso jolgorio y el buen humor, tan necesario para el hombre que ha de sobrellevar los azares de la vida.

De lo que hemos podido recoger de aquellos festivales de antaño, el único saldo son toda una serie de anécdotas sin graves consecuencias. Lo sucedido a aquel marido mujeriego que le arrastraban sus habituales pretensiones, pero cuya esposa también se disfrizó y consiguió un ligue con su propio esposo. De aquel otro que pretendía entrar en un baile donde forzosamente se exigía ir aparejado y se había acompañado de una cuya reputación era dudosa y le puso impedimentos el portero por las instrucciones que debería cum-

plir para no llevar que ofrecían dudosa libertad, y al que el gaba que las dudas dentro y a la que no era dudosa para conducta moral en público. Aquellas "dades" de los platos y Andando, cuyas más allá de la del Deva. Las absurdidades de Chirio-kale, que pretendiera distraer, desgracia, no inapercibido. Ha sucedido de amigos que martes de carnaval ron con la bebida tumbándose en un fado que o acabara fue que o acabara la mañana siguiente de ceniza, se desprecia koitia, sin recuerdo, para emprender el Azcoitia, cuando el templo, ellos, el de indio y el otro dando de disimulando por los minutos funciones del niza.

San Adrian - go haitzuloa

Arabak bi igarobide izan du Gipuzkoako probintziaren harremanik euki ahal izateko. Bata Leintz Gatzatutako hasti eta Deha artoa oso hartzen zuena. Bestea San Adriango haitzuloa: Zegama, Segura eta Oria ibarrera daramana. Aurten Urtarrilaren 16an bildu dira Seguran Araba eta Gipuzkoako Partzoneriaren Batzordea, urtean zenbait bider egiten den bezala, alderdi hartako artzain eta ganadu-jabeen gorabeherak aztertzeko. Bi probintzia hauen arteko hartu-eman hauek aintzinatik dator eta ba da hostean onarritutako lege-riarik. Baina gaur ez dat puntu hau azalduko. Bai, berriz, San Adriango haitzuloaren gaineko zenbait zehatu-sun, probintzia batetik bestera doan haitzuloaren garrantzia azaldu nahi dudalarik.

Europatik Gaztelara zihonan ibilkeriak Gipuzkoatik Arabara igarotzen aurkitzen zuten lehen eragozpen naturala San Adriango hau zen. Gehienak Holandaa, Frantzia edota Europako gainontzeko leku lauetatik zetozen eta ere errezatzen. Irakur dezagun, esaterako, Felipe Ederria, Errege Katolikoen suaina, haitzulo horretatik 1.502-an lehen aldiz pasatzean idatzi zena: "Esta villa (Segura) está al pie de la montaña de San Adrián, mala y peligrosa, siempre cubierta de nieves". Felipe Ederriaren bidaiaren honetan

Palatinatuko Hauteslearen lagunaren semea zetorren, zenbait urte geroxezgo Palatinatuko Federiko II. gnak izango zena. Beste bi bidaiak gehiago egin zituen Federiko II. gnak Arabatik zehar eta azkenengoan, 1.538. gertaera bitxi bat izan behar izan zuen. 1.538ko Egoberriak dira eta Federikoren batera bere emaztea, Dinamarkako Dorotea, eta jurratigo haindi bat zetozen. Baita bere idazkaria zen Liejako Humberto Tomas ere. Hain zuzen ere, azken honek bidaiaren zenbait zehazkizun idatzi zuen. Idazkian, elurra zela eta, oraindik printze zen Federiko eta lagunak hilozian egon zirela irakur daiteke. Begira zer dion idazkariak:

"... llegamos a Segura la víspera de Navidad. Al día siguiente intentamos abrirnos paso hasta lo alto del monte, pero era tanta la fuerza con que soplaban el viento que nos llenaba los ojos de nieve. Así que fue preciso regresar a Segura, donde además de las burlas y carcajadas de que fuimos objeto, apenas si nos quisieron recibir aquellos púrfidos vizcaínos. Nos lanzaban desde las ventanas bolas duras de nieve..."

Dena dela, haitzuloa iritsi zirenean ulerpe arkuitu zuten bertan eta Galarretako nekazari batek nondik joan behar zuten erakutsi ei zien. Jaitziziren Zalarretara baita elurrak ostera hartu zuten bidaiari arrotzak eta

bertako biztanle batzuek Gasteizera inoiz lagundu behar izan zieten, bidean gal ez litezen.

Haitzulotik igaro ziren bidaiari batzuei esker bide eta tokiko datu asko ezagutzen dugu gaur. Ez da lekukotasunik falta leize honen itxura nolakoak zen jakiteko. Eman ditzauden zenbait zehazkizun: mentzulok 100 oin luzeran, 10 zabaleran eta 15 goieran zituen. Nolanahi ere, bidaiari-idazleek zenbaki desberdinik ematen ditugute zuloaren neurriak aipatzean. Bi ahoak ate handiez ixten ziren eta barruan San Adrián eskaintako kapera txiki bat ikus zitekeen. Era berean, bidaiariak esan litezkeen, bertan taberna bat zen, erregaena ei zena eta zuloatik igarotzen ziren mandazatnek hainbeste ordaindu behar zuten. Harkaitzari urik zerion eta tantaztana, harrizko edontzi batera biltzen zen.

Trakurleak ideia osoago bat egin dezán. 1.707-an Juan Alvarez de Colmenar-ek idatzi zitakoa zenbait zati aukeratu dit:

"... éste es el motivo por el que ha sido preciso abrir un túnel a fuerza de martillos, cincelos o minas... y se camina por esta bóveda sin ver más luz que la que entra por las aberturas que hay en los dos extremos. Bajo esta bóveda se ha construido una hostelería donde se encuentra con qué refrescarse en verano; con una agradable fuente

de agua fresca que brota de la roca. Pero en invierno la casa está abandonada a causa de las nieves. Los huéspedes son, por lo común, miserables pordioseros que os piden limosna por amor de San Adrián. También se ve allí una pequeña capilla dedicada a este santo, con un altar sobre el que está la imagen de Jesucristo y el lienzo de la Verónica".

Baina, dirudinez, lapur eta bide-erastozailentzat toki egokia zen. Eta bertatik igarotzen ziren bidaiariak beldurrak jota egoten ei ziren bazter haletatik ateratzen ez ziren bitartean. Hau dela eta, Gaztelara eragozpenik gabe iritsi ahal izateko, askok hasieran aipatutako beste bidea aukeratu zuten: Deba arrotik gora Leintz Gatzatutatik igarotzen zena.

XVII. gn. mendearren erdialdera errege-bidea zabaldu zen Gipuzkoa eta Araba lotzeko. Geroztik San Adriango igarobideak garrantzia galdü duela esan daiteke, komunikagunari dagokionez, noski. Oraindik gauregun galtzada zaharra ikus daiteke eta mendizaleen jomuga bilakatu da, hango bazierrak araz erakargarriak baitira. Baina, oraindik ere, hango jaun eta jabeak partzoneriak erregulatzen dituen artzatak ditugu.

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

El pasado día 16 de enero se celebró en Segura (Guipúzcoa) una reunión de la Junta de Parzoneria de Alava y Guipúzcoa, que trata de equilibrar el derecho de los pueblos que la forman sobre la utilización de sus tierras. No voy a tratar hoy sobre este tema tan interesante, sino que intentaré dar a conocer al lector una serie de datos sobre el túnel de San Adrián, divisor natural de esa zona en que lindan las dos provincias mencionadas.

San Adrián ha sido paso obligado para los viajeros que, viniendo de Europa o dirigiéndose a ella, iban a atravesar territorio alavés y no querían utilizar el paso de Salinas de Leiz. Se puede decir que hasta mediados del siglo XVII las poblaciones guipuzcoanas de Segura y Cegama y las alavesas de Galarreta y Zalduendo eran puntos de referencia en la ruta de muchos europeos que se

dirigían a Santiago o bien a la corte.

Nos ha quedado de las vivencias que experimentó su paso por el túnel de San Adrián, podemos leer en un relato de ellos, acostumbrados a anchos y despreciosos hasta el túnel se todo en época en que la nieve le una referencia de una ser rey del túnel —cruza el túnel en la que conocemos la ocasión que le dio de perder la vida. Dorotea de Dinamarca, al ser amonestado, presionante formo rece la pena lección hace sobre el roc cieron en Segura.

Según las opiniones de los viajeros que, en el túnel, las medallas veinte pies de los cientos o hasta los tiro de ballesta, truido a base de minas, y en un capilla y una propiedad real. atendían las llamamiento de otra parte, no jeros fueran que, por lo de la zona, esto en guardia de

Todo esto ha que esos visitantes han dejado, hagan hincapié en naturales impo túnel. Hoy, habiendo mismo a medallas entonces recib real, San Adrián, cuento de cam que encuentran las condiciones solaz y el recer los pastores, duenos y zaba



DONOSTIAKO UDALA

UDALETXEO ZERGA BILKETARAKO BULEGOA
OFICINA DE RECAUDACION DEL AYUNTAMIENTO
ZERGA MUNICIPALK

<p>ZERGAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> —Estoldak. —Iggogailu. —Behatoki. —Ur jaitseira. <p>Hauzoak: Zona: Parte Vieja, Centro y Ensanche de Amara.</p> <p>Zure esku daude, datorren apirilaren 15 arte, 1981-ko zerga hauei dagozkien ordainagirik.</p> <p>BULEGOAK: Okendo 9, behetan Donostia.</p> <p>ORDUAK: 9 tik 1 ra. Larubatean, 9 tik 12.30 ra.</p>	<p>TASAS SOBRE:</p> <ul style="list-style-type: none"> —Alcantarillado. —Ascensores. —Miradores. —Bajadas de agua. <p>Están a su disposición hasta el próximo 15 de abril los recibos correspondientes a estas Tasas Municipales (año 1981).</p> <p>OFICINAS: Oquendo, 9 bajo, San Sebastián.</p> <p>HORARIO: de 9 a 13 horas. Sábados, de 9 a 12.30.</p>
--	--